




# ALEA

arabako aldizkaria

HAUR LITERATURA  
**BARNE GATAZKAK,  
ABENTURA BERRIETAN**



GURE  
TALDEEKIN  
BAT!



VITORIA · GASTEIZ

# BASKET CAPITAL

2019

EMAKUMEZKOEN  
SASKIBALOIKO  
ERREGINAREN  
KOPA

OTSAILAK 28 - MARTXOAK 3





# ALEA

## 184

2019-03-01 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:  
JUANMA GALLEGU.

## Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Sortzaileen eskutik, haur literaturari begira.
- 8 **Protagonista.** Fernando Lopez Castillo, Ahal Dugu-ko Gasteizko alkatetzarako hautagaia.
- 12 **Iritzia.** 'Ivan Rocha', Oihan Txabarri.
- 13 **Gutuna.** Utzikeria politikoaren aurrean, elkartasuna.
- 14 **Sarean.** #TalkaEzUkitu.
- 16 **Politika.** Martxoak 3ko sarraskiaren urteurrenaren atarian.
- 18 **Gizarte.** Lokatz erradioaktiboa isuri du Garoñak.
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Gizarte.** Inauteriak, ate joka.
- 24 **Gastronomia.** Miniature pintxo jaialdiak 80 sukaldari inguru batuko ditu.
- 26 **Sexualitatea.** 'Musua, tutorialik gabe', Emaize.
- 27 **Kultura.** 'Moda versus arropa', Maddalen Agirre.
- 28 **Gure bazterrak.** Gilierna.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

### Bultzatzaileak



# berria goiena

### Laguntzaileak



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

*Araba da  
erronka*

### Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

### Zuzendaria

Aritz Martínez de Luna

### Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugartte

Juanma Gallego

### Komertziala

Erlantz Anda

### Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 2.100 ale

### EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

### PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

### HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: [www.alea.eus/harpidetzak](http://www.alea.eus/harpidetzak)

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Oihan Txabarri, Emaize eta Maddalen Agirre.

# Kontalariekin, umore eta beldurren bila

Arabako hainbat sortzailek haur literaturaren erradiografia txikia egin diote ALEAri, kontalari saio eta saio artean; "gehiegizko babesak" haurrentzako kontakizunetan eragin nabarmena izan duela uste dute, eta balore "hezigarriagoak" lehenetsi dituztela literaturaren kalterako.

Testua: **Anakoz Amenabar**  
Argazkiak: **A. Amenabar/  
Elkar**

**G**aur egun *Txanogorritxu* argitara ematea zaila litzateke; argitaletxe askok ez lukete onartuko". Haur literaturak hartu duen bidearekin kezkatuta agertu da Txabi Arnal. "Umearen aisialdiaren alde txepelena ari da hartzen literatura. Zineman edo bideo-jokoetan egon daitekeen alde ausarta, transgresorea ez dago; balio subertsiboa desagertu da literaturatik". Eta antzeko joera antzeman du Edu Zelaietak. "Abentura, umorea, beldurra... faltan botatzen ditugu, literatura azken batean, autentikoa dena". Gasteizko Elkar dendan egin du topo ALEAk eurekin, elkarrekin idatzi duten *Torlojuak* ipuina haurrei aurkeztu berritan. Idazleak, Gasteizko Irakasle Eskolako irakasleak eta gurasoak dira biak, eta, hain zuzen, horiek dira, euren ustez, haur literaturak dituen "gaitz" handienak: "gurasoak, irakasleak eta pedagogia".

Liburu dendako inguruko apaletan nagusi dira "umeen emozioak" lantzen dituzten liburuak, eta ez hainbeste haur literatura klasikokoak. Haur liburu asko dago merkatuan, baina haur literatura gutxi, Arnal eta Zelaietaren esanetan. "Inteligentzia emozionala da orain jorratu beharrekoa, modakoa, eta horren arabera enkarguzko literatura da nagusi. Ikaskizun edo helburu didaktiko bati erantzuna emateko sortutakoak dira. Baina horren beharrik ba al dago? Literatura ona baldin bada, emozioz beterik dago, berez", gogoratu du Arnalek. Sorginekin, munstroekin, otsoekin edota Frankensteinekin "benetako beldurra" sortzen duten liburuak desagertzen joan direla dio, "eta, aldiz, umeak beldurrari aurre



egiteko hamaika liburu aurki ditzakezu apalategietan". Adibide hori beste edozein gaitan ere eredu nagusia dela aipatu du. "Maiz topatuko ditugu 'Aitorrek bi ama ditu' moduko tituluak, eta, aldiz, gutxitan narrazioaren testuinguruan bi ama dituen ume bat".

Gai desberdinak modu naturalean "piroteknariak gabe" eskaintzen dituen literatura faltan botatzen du Zelaietak, eta horren atzean "gainbabesa" dagoela uste du: "Gehiegizko babesak alor guztietara eramaten ari gara; eta gehiegizko babesak desbabesa dakar". Haren belaunaldiko guraso askok egiten dutela dio, "asmo onekin, baina ondorio txarrekin". Literaturan zer da, ordea, gehiegi babestea? Egokitasunaren izenean, gai deserrosoak baztertzeari eta halako istorioen aurrean ez jartzea "arazo larri bat" dela uste du Zelaietak: "Egokitasunaz debate interesgarria egin daiteke, baina gaur egun batez ere gainbabesaren lupatik begiratzen zaio literaturari, eta hori akats handi bat da; gehiegi babestuta egotea irreal da".

Egokitasun "zorrotz" horren adibide ugari dituzte bi idazleek, baita euren lanak publikatzeko garaian bizitakoak ere. Espainiako argitaletxe batekin Arnali azkeneko egunetan gertatutakoa adierazgarria izan daiteke. "Idazlan bat bidali dut eta argitaletxeak erantzun dit gustatu zaiela, oso originala dela, baina ezin dutela argitaratu eman 'culo' hitza tituluaren daramalako; titulu horrekin ezin omen dute atzerrian saldu". Hitz horretan ez dago irainik – *El culo de Carola*– Arnalen arabera, "eta aldiz ez dute joku fonetikoak ikusten, nik buruan nuena". Zelaietaren arabera, "gaizki ulertutako politikoki zuzena" den beste erabaki bat da hori, askotan idazleak

'Izarren bila' ipuina aurkeztu du Eneko Etxegararik; irudian, Gasteizko Elkarren egindako aurkezpena.

## **"DISFRUTATZEA IZAN BEHAR DA HELBURU NAGUSIA, HELBURU PEDAGOGIKOekin TEMATU GABE"**

Eneko Etxegarai

## **"GEHIEGIZKO BABESA ALOR GUZTIETARA ERAMATEN ARI GARA, ETA HORREK DESBABESA DAKAR"**

Edu Zelaieta

autozentsuratzera eramaten dituzten erabakiak. "Politikoki zuzena den hori olagarro handi bat da, eta askotan beste batek eskua sartu baino lehenago zentsuratzen du norberak".

### **Kasketalditik, ipuina**

Seigarren haur ipuina kaleratu du Eneko Etxegarai haur hezkuntzako irakasle eta ipuin kontalari gasteiztarrek, eta ez du "artazia"-ren mehatxurik bizi orain arte. "Egia da ni idazten hasi nintzenean ez zela publikatzeko helburuarekin egindako lana izan, eskolan banatzeko ipuina baizik, eta horrek bestelako lasaitasun bat ematen duela; hurrengo liburuetan, egia esan, askatasun handia izan dut editore eta argitaletxearekin", kontatu du ALEA FM saioan egindako elkarrizketan. Irakasle gisa, ipuinetatik gertu izan da beti Etxegarai, lan euskarri modura, baina semeak bi urte zituela izan zuen kasketaldi bat izan zen idazten hasteko arrazoi nagusia: "Afari hartako kasketaldiari aurre egiteko kontatu nion ipuin batekin ekin nion abentura honi".

Geroztik, sei lan kaleratu ditu Eduardo Rodriguez ilustratzailea lagun. *Nondik nator?*, *Ilunpearen sekretua* edo *Ez dut txerrikumea izan nahi* izan dira argitaratu dituenetako batzuk, eta *Izarren bila* lan berria du esku artean. Hain zuzen, ipuinei omenaldi txiki bat egin nahi izan die azken honekin. Eñaut eta Ihintza haurrak dira abenturan protagonista, Marixa amonaren baserrian asteburu-pasa oraingoan; amonak prestatutako jolas eta ipuinekin asteburu ederra igaroko dute. Erakargarria izango den hasiera-gakoa aurkitu eta amaiera berezi bat ematea dira Etxegaraik idazten hasteko dituen abiapuntu nagusiak, betiere idazleak berak gozatzen haurrek goza dezaten bilatzeko: "Disfrutatzea izan behar da helburu nagusia, nire ustez, gai zehatz baten inguruan idatzi eta pedagogikoak izateko helburuarekin tematu gabe; hortik aurrera, uste dut gai desberdinez hitz egin dezakegula haurrekin ere, askatasun osoz. Haurrek istorio

politekin disfrutatzen dute, eta horrek izan behar luke garrantzitsuena".

*Puaggl* ipuina aurkezteko egin zituen lehenengo kontalari lanak umeen aurrean. "Ipuina aurkezteko ez nuen beste modurik ikusten; babestuago sentitzen nintzen haurren artean, beste idazle batzuekin mahaian egin baino, eta hala izan da ondoren ere". Haurrak publiko "zorrotza" direla azaldu du Etxegaraik, eta arreta bereganatzeko hainbat estrategia landu ditu: "Askotan zaila izaten da, bat aztoratzearekin nahikoa izaten delako guztia hankaz gora jartzeko; gertatu izan zait, eta dantzan amaitu dugu denok".








Etxegaraik moduan, haurrak nahasten direnerako "arma" desberdinak ditu prest Erika Likete ipuin kontalaria. Horien artean, magikoa izaten da txirula. "Arreta galtzen ari direla ikusten dudanean edo baten bat aztoratzen denean, txirulak edo kanta batek ondo funtzionatzen dute", azaldu du Gasteizko Astrolibros liburu-dendan egin duen ipuin saioan. Sorgina Txirulina pertsonaiaren bitartez, adi adi ditu haurrak barazki eta animalia desberdinen istorioak entzuten: "Uste dut edozein gai ekar daitekeela oholtzara, baita haurrentzat ere; adinaren arabera, moldatu behar izaten da, eta animaliek aukera bikaina ematen dute euren bitartez hamaika esperientzia kontatzeko".

Enpresa batentzat ipuin pertsonalizatuak idazten ari zela, aukera izan zuen haurrentzat idazteko, eta, geroztik, sorginarekin hiru urte daramatza saio batetik bestera. Ipuinekin hurrek gozatzea du lehentasuna, pedagogiari garrantzia kentzen ez badio ere: "Dena eginda eman beharrean, halere, gustatzen zait iradokitzailea izatea, umeak ikusi dutenaz konturatzea eta beraien ondorioak ateratzea, mezu propioak".

Kontalari sentitzen da Likete, baina *Musika eta ipuinak* liburua ere argitaratu du, hurrek eta gurasoek elkarrekin gozatu eta euskara ikasteko liburu berezia; euskaraz ez dakiten gurasoekin hainbat tailer eskaintzen ditu Arabako ikastoletan, eta osagarri moduan prestatu du liburua. "Asko disfrutatzen dut hurrekin, eta harritzeko duten gaitasunarekin; niri ere familian ipuin ugari kontatu dizkirate eta horrek arrasto bikaina uzten du". ■■■

Goiko irudian, Erika Likete ipuin kontalaria, Gasteizko Astrolibros dendan eginiko saioan.

Ezkerreko irudian, Txabi Arnal eta Edu Zelaieta ipuin kontari Gasteizko Elkar dendan.



Urte askoan udal funtzionarioa izan da Lopez Castillo, eta orain hara bueltatu nahi du, erakundearen kudeaketan parte hartzeko. J.G.

## "Aro politiko berria behar dugu, gizartea zeharo aldatu da eta"

**FERNANDO LOPEZ CASTILLO** GASTEIZKO AHAL DUGU-KO ZERRENDABURUA

Alderdi barruko hauteskunde primarioak irabazi berri ditu Fernando Lopez Castillok, eta datozen udal hauteskundeetan Gasteizerako alkategaia izango da, beraz. Erretiroa hartu badu ere, zahartzarora politikan eragiteko aro aproposa dela babestu du. Leloen gainetik, "hiri morea" nahi dutela aldarrikatu du. Testua eta argazkiak: **Juanma Gallego**.



**G**asteizko alkatetzarako hautagaia da Fernando Lopez Castillo (Gasteiz, 1953), Ahal Dugu alderdiaren izenean. Alderdiaren barruko hauteskunde primarioak irabazi behar izan ditu aurretik. Egituraren babesaren bazuen ere, legealdi honetan Udalean Ahal Dugu-ren bozeramaile izan den Jorge Hinojalek ere hautagaitza aurkeztua zuen, eta biak lehiatu dira alkategai izateko. Gasteiz *Green capital* izatek "hiri morea" izatea lortu nahi dutela azpimarratu du Lopez Castillok, emakumezkoen lana aldarrikatuz; gaur egun arlo sozioekonomikoan dauden erronkei aurre egiteko beharra gogorarazi du.

**Ikus-entzunezkoen arloko udal funtzionarioa izan zara, eta aspaldian politikan aritu bazinen ere, erretiroa hartu duzunean politikara bueltatu zara. Zerk eraman zaitu horretara?**

Erretiroa hartu nuenean, hainbat lagunen artean proiektu bat lantzeari ekin genion: zaharren egoitza batera joan beharrean, denon artean bizitzeko egitasmoa landu nahi genuen, bakoitzak bere apartamentuan, baina zerbitzu komunekin; ortu batekin eta energia propioa sortuz, esaterako. Azkenean ez dugu aurrera eraman. Baina garai horretan Podemos jaio zen, eta pentsatu nuen ongi sentituko nintzela gauzak aldatzeko mugimendu horretan. Badakizu, gizarteak erretiratuak Benidorm aldera bideratu ohi ditu, baina ez gaituzte kontuan hartzen politikan parte hartzeko, eragile bezala. Baina, gure bozka oso inportantea izateaz gain, gizarteak gure gaitasunak eta trebetasunak erabili beharko lituzkeela uste dut.

**Eta ez al zaizu zaila suertatu egitasmo hori atzean uztea politikan sartzeko?**

Erabaki hori hartu nuen, eta pozik nago. Nik erretiroa ez dut ulertzen ezer ez egiteko modua bezala, gauzak egiteko baizik... gizartearen eragiteko modu bat bezala. Libre sentitzen naiz, gainera; ez dut alderditik kobratzen, nire pentsioarekin jarraitzen dut. Momentuz, nituen beste proiektuak atzeratzea erabaki dut, baina politika uzten dudanean berreskuratuko ditut. Halere, proiektu horietako batzuk bidean daude. Adibidez, azken bost urteetan landu dudak dokumental bat aurkeztuko dut martxoan: *La herencia de mi abuela* izenekoa. Memoriari eta familiari buruzkoa da. Fusilatu zuten CNTko osaba baten istorioa du oinarri. Urari buruzko telesail bat ere buruan daukat aspalditik.

**Alde gutxigatik irabazi dituzu primarioak. Nola kudeatuko dituzu bi hautagaitza horiek kontuan hartzeko?**

Barne hauteskundeetan ez ditugu programa desberdinik aurkezten: gure hauteskunde programa oraindik ez dago bukatuta, orain auzoz auzoz osatzen ari gara. Oinarrizko programa bat bada, noski, eta hori koordinatzen dugu Euskadiko eta Estatu osoko programekin. Alderditik kanpo ikusten da tendentziak badirela: *pablistak* eta *errejonistak*, edo antikapitalistak... baina, egia esanda, hemen ez dugu diferentzia handirik. Hasieratik zerrenda komuna prestatu genuen. Berez, bi prozesu ziren: zerrendaburu izateko eta zerrendetan joateko. Ez dakit zergatik, baina Jorgek [Hinojal] soilik aurkeztu zuen bere burua zerrendaburu izateko, eta haren hautagaitza ez da atera. Ni bietan egon naiz.

**Nola barneratuko dituzue konfluentziak?**

Orain justu hori lantzen ari gara, gure zerrendetan Equo zein Ezker Anitza sartzeko. Ia-ia itxita dago kontua, baina momentuz ez dago behin betiko erabakia hartuta. Halere, gure asmoa da guztiok batera joan ahal izatea.

**Zein irizpide erabili dituzue zerrendetan aukeraketa egiteko?**

Gure zerrenda berri nahi izan dugu, baina aurretik bildutako esperientzia galdu gabe. Zentzu honetan, oreka interesgarria lortu dugula iruditzen zait. Legegintzaldi honetan zinegotzi izandako Juan Cerezuelaren esperientzia dago, esaterako. Gemma Zubiaurreren konpromisoa eta jakintza ere izango ditugu: ikastola batean lan egin du, eta euskara eta kulturaren arloak oso ondo ezagutzen ditu. Garbiñe Ruiz, berriz, arte ederretan lizentziatua da, eta beti kulturaren inguruan ibilitakoa da.

**Ezkerraren batasuna noizbait lortuko al da?**

Jendeak esan ohi du ezkerrekoak beti daudela banatuta, baina, Gasteizen bederen, gure ahalegina izan da batasuna lortzea. Batetik, Ahal Dugu-ren barruan, eta bestetik, Equo eta Ezker Anitzarekin. Batek daki, ordea, bihar zer gertatuko den! Orain eskuma ere bananduta ageri da, eta bere garaian ere EA] eta EA banatu ziren. Dena dela, iruditzen zait une politiko berri baten atarian gaudela, orain gauzak oso desberdinak direlako aurreko urteekin alderatuz.

**Zertan bereizten da ba egoera?**

Batetik, ekoizpen sistema osoa aldatu da orain. Adituek diote merkatuak langileen %30 besterik ez duela behar ondasunak eta zerbitzuak

sortzeko. Hortaz, asmatu behar dugu zer egin langabezian geratuko diren pertsonekin. Bestetik, gizarte egitura osoa ere aldatu da. Familiarena adibidez. Adibide bat jarriko dizut: duela 50 urte edo, gure aita atezaina zen MEVOSA DKVn, eta haren soldataren %25 hipoteka ordaintzera bideratzen zuen. Orain, aldiz, soldata oso bat behar da hipoteka ordaintzeko. Bankuek aldatu dute egoera hori. Garai horretan, nire etxean, 100 metroko etxe batean hamahiru lagun geunden. Oraingo etxe batean, Salburua edo Zabalganean, 75 metroko etxebizitza batean guraso bakarreko familia bat bizi da askotan; ama bat eta haren semea, esaterako. Gizarte osoa aldatzen ari da, eta guk prestatu nahi dugu aldaketa horren barruan enpleguak sortzeko.

### **Eta zer aterabide du egoera horrek?**

Batetik, agerikoa da enpresa handiak askoz diru gehiago irabazten ari direla. Baina soldatapekoek ordaintzen dute zerga gehien: %83, hain zuzen. Enpresek %17 ordaintzen dute, gutxi gorabehera. Hori kontuan hartu gabe enpresa handiek erabiltzen dituzten amarruak; %1 kotizatzea ahalbidetzen duen SICAV moduko egiturekin, adibidez. Funtsean, soldatapekoak, autonomoak eta enpresa txikiak ordaintzen ari dira diru gehien, eta hau ez da bidezkoa: enpresa handiei zerga handiagoak jarri behar zaizkie. Bestalde, enplegu berriak lortu beharko genituzke. Equok edo ELAk, adibidez, norabide horretan doazen proposamenak aurkeztu dituzte: ingurumenaren alorrean edo zaintzaren alorrean enplegua sustatzeko, hain zuzen. Batez ere emakumeek etxean egin ohi duten lana ere kontuan hartu beharko litzateke. Era berean, sormen lanak ere hezkuntza sisteman txertatu ahal dira, eskolaz kanpoko klaseak emateko, eta hor ere enpleguak sor daitezke. Argi dago enplegu berriak sortzeko alde badagoela. Ez da erraza izango, baina denon artean egokitu behar dugu egoera berrian.

### **Hauteskundeei begira, zeintzuk izango dira zuen programaren oinarriak?**

Emakumeen egoera izango da ardatzetako bat. *Green capital*-etik hiri morera igaro nahi dugu. Garai berri batean sartzeko garaia dela uste dugu, ez horrenbeste lehiatsua eta gatazkan oinarritutakoa, eta emakumeak horretarako askoz hobeto prestatuta daudela uste dugu. Arlo honetan ere, segurtasuna indartu nahi dugu, indarkeria ekiditeko; baina, beti ere, segurtasun hori askatasunarekin lotu behar dugu. Emakumezkoak kaiola batean sartzen baditugu,

seguruenez ziur egongo dira, baina, hori, noski, ez da irtenbidea. Askatasunean oinarritutako segurtasuna behar dugu. Pentsiodunak izango dira bigarren ardatza. Gemma [Zubiaurre] eta biok hirurogei urte baino gehiago ditugu, eta ondo ezagutzen dugu egoera. Esango nizuke emakumeen eta pensiodunen mugimendua izan direla Mariano Rajoy Espainiako gobernutik

## **"GIZARTEAK BENIDORMERA BIDERATZEN DITU ERRETIRATUAK; EZ GAITUZTE KONTUAN HARTZEN"**

## **"MERKATUAK LANGILEEN %30 BESTERIK EZ DU BEHAR: LANPOSTU BERRIAK SORTU BEHAR DIRA"**

## **"BOST ZINEGOTZIREKIN ARI DA GOBERNATZEN EAJ. EZIN DU ERABILI ALDERDI BAKAR BATEN IKUSPEGIA"**

## **"EZKERREAN BETI EGON DIRA DESADOSTASUNAK, BAINA BATASUNA LANTZEN ARI GARA"**

kanporatzeko gako nagusiak. 900 euroko gutxieneko soldata jarri dute orain, baina pensiodunek diote urtebete eta erdian 1.080 euroko gutxienezko pensioa behar dela, beti ere gutxienezko soldata 1.200 eurokoa bada. Izan ere, kate bat da, eta bata ez da sustengatzen bestea ez badago bermatuta.

### **'Green capital' kontzeptua utziko duzue alboan, beraz?**

Gaia ez, noski, baina uste dugu arlo horretan lan serioa egin behar dela; ez da lelo hutsa izan behar. Natura babestu behar da, eta hauteskunde ondorengo itunak egin behar baditugu, hori kontuan izango dugu. Adibidez, akuiferoen galera ekar dezakeen *fracking*-aren aurka gaude. **Itunak egin behar badira, zein norabide hartuko duzue?**

Gu itun progresisten aldekoak gara. Gure programan PSOEren edo EH Bilduren



Hauteskunde ondorengo itunak sinatzekotan, hiritarren parte-hartzea bermatzea eskatu du Ahal Dugu-k. J.G.

programekin aldera zitezkeen proposamenak badira, eta, zerbait gauzetan, EAJko programarekin ere. Zentzu horretan, ez dugu aurretik baldintzarik jartzen. Baina oso zaila da jakitea gero zer gertatuko den; portzentajeak ikusi beharko dira. Legealdi honetan bost zinegotzi besterik ez dituen alderdi bat gobernatzeko ari da. Baina EAJk ez du kontuan hartu ideia bat: botoen %20 baino gutxiago izanda, ezin duzu gobernatu alderdi bakar baten ikuspegiarekin.

#### **Beraz, EAJri babesa emateko, parte-hartze gehiago eskatuko zenikete?**

Bai noski: denon artean erabakitzen badugu, eta jendeak parte hartu badezake, ados geundeke. Baina orain arte egin dutenarekin ez gaude ados. Adibidez, trenbidearen lurperatzearen gaian: ez dute mahaiaren gainean jartzen proiektu horren benetako kostua zenbatekoa izango den. Ia 1.000 milioi euro badira, guztiok ordainduko ditugu, eta horrek guztion parte-hartzea eskatzen du, halabeharrez. Dena dela, mugikortasuna beste modu batean landu beharra dago. Gu bus elektrikoaren alde gaude: askoz merkeagoa da, eta agian azkarragoa, eta ez da azpiegiturarik ordaindu behar hori martxan jartzeko.

#### **KREari buruzko proposamen zehatza ere aurkeztu duzue. Zertan datza?**

Orain arte KREAn 19 milioi euro gastatu dira, eta zortzi urte igarota, hutsik dago. Azkenean akordioa lortu da diseinu eskola jartzeko, eta arlo kulturean dabilen enpresa bat bertan aritzeko. Baina guk uste dugu soberako espazioa dagoela hor sormena landuko duen gunea bat jartzeko. **Estatu mailan Podemos-en krisiari buruz asko hitz egiten ari da. Horrek eraginik izango al du Gasteizen?** Ezkerrean beti egon dira desadostasunak, baina hau ez da kontu berria: hemen ere egon dira. Oroitzen naiz aspaldian autodeterminazioaren alde ari zirenei espainolista deitzen zietela; baina, orain, abertzaleek autodeterminazioa defendatzen dute. Podemos barruan, erabakitzeko eskubidea errespetatzen dugu, baina guk gai sozialak lehenesten ditugu. Podemosi dagokionez, hedabideek benetako barne arazo bat izan den hori hartu dute, eta hor zentratu dira, banaketa irudi bat zabaltzeko. Ea, *De Miguel* auziaren epaiketa dago orain: Arabako buru batzar erdia hor sartuta dago, baina inork ez du horri buruz hitz egiten. Guk ez dugu horrelako arazorik, eta, halere, guri buruz hitz egiten dute. ■■■



# Ivan Rocha



**OIHAN TXABARRI**

PUBLIZITATEAN LIZENTZIATUA

**G**aldetu nire adineko alaveszale bati nor den Ivan Rocha eta segituan esango dizu: penaltia korrerera bidali zuen hura. Ez dizu esango Ivan Rocha Lima jauna Sao Paulon jaio, 18 urterekin Sao Paulo FC-rekin debuta egin eta hamaika talderekin ibilbide profesional oparoa izan zuen ezker alboko atzelaria izan zela, ezta 23 urterekin Amerikako txapeldun izan zela, Libertadores kopako penaltietan berea sarturik. Gasteizko futbolzale gehienek Ivan Rochari buruz gogoratzen duten gauza bakarra beste penalti bat da, Alaves-Valentzia batean oso gaizki jaurti eta ia korrerera bidalitakoa, eta hala esango dizute galdetuz gero, 20 urte pasa badira ere. Iruditeria kolektiboan askoz sakonago geratzen dira iltzatuta hutsegiteak ongi egindakoak baino.

Alaveseko zaleei Ivan Rocharekin bezala gertatzen zaigu euskaldun gehienoi ETB 1ekin. Euskarazko telebista kate publiko bakarrak baditu zenbait saio bikain, eta kalitate handiko edukiak sortzeko ahalmena duten langile prestu eta azkarrak. Baina iruditeria kolektiboan geratu direnak Mr Bean, kamera ezkutu quebectarrak, rantxerak eta Meza Santua dira. Agian karikatura bidegabea izango da, Ivan Rochak gurean utzitako arrastoa bezala. Baina gure telebista publikoaren kontrola dutenen lehentasuna Telecincoren erdal kopia EAETarra bultzatzea den bitartean, saio bikain horiek programazio kaskarraz eta errepikapenez inguratuta egongo dira; eta gure hizkuntzaren normalizaziorako (hau da, gure normalizaziorako) ikus-entzunezko tresna nagusia hori besterik ez da izango. Jokalari oso trebe batek etengabe korrerera jaurtitako penaltia. ■■■

**IRUDITERIAN ASKOZ  
SAKONAGO GERATZEN  
DIRA ILTZATUTA  
HUTSEGITEAK ONGI  
EGINDAKOAK BAINO**

## Utzikeria politikoaren aurrean, elkartasuna

**OLATZ ALONSO GUEVARA**

ARABAKO SEADEN LAGUNEN ELKARTEA

Otsailaren 27 honetan, elkartasun mugimendutik saharar herriarekin bat egiten dugu Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren aldarrikapenaren 43. urteurrenean. Gaur bezalako egun batean sahararrek duten gizartearen babesak hartuko duen ikusgarritasuna ospatzen dugu, Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetara bidaiatuko duen elkartasun-karabanak erakusten duen moduan, maitasun eta senidetasunez bete.

Gizarte zibilak giza eskubideekiko babesa argi adierazten duen bitartean, elite politikoek beste interes batzuk gailentzen dituzte nazioarteko legeriaren gainetik. Europako Parlamentuak otsailaren 12an onartu zuen Marokorekin sinatutako Arrantza Akordioa saharar uretara zabaltzea, aldeko 415 botorekin, kontrako 189ekin eta 49 abstentziorekin. Europako Batasuneko Auzitegiaren ebazpen desberdinen aurka doan erabakia da. Auzitegiak Marokok Mendebaldeko Saharako uren inguruko erabakirik hartzeko ahalmena ez duela ebatzi du, deskolonizatu gabeko lurralde bat delako sahararra.

Interes ekonomikoei erantzuten dion erabaki bat den irudia eman ahal badu ere, logika politiko baten barnean kokatzen da, zeinetan saharar herria da kaltetu nagusia. Marokorekin sinatutako Arrantza Akordioak saharar urak barne hartzearekin, Europako

Batasunak estatu alaiaren subiranotasuna aitortzen du Mendebaldeko Sahararen gainean, okupatutako lurraldearen baliabide naturalak kudeatzeko ahalmena aitortzen baitio. Nazioarteko zuzenbidearen arabera saharar herriaren ordezkarien esku dagoen zerbait, Fronte Polisarioaren esku, hain zuzen, eta ez potentzia okupatzailearenean.

Europako itsasontziak saharar uretan lan egiteko baimenaren truke Marokok 52 milioi euro jasoko ditu urtero ordain gisa,

"ESPAINIAK ETA EUROPAKO BATASUNAK BIZKARRA EMATEN DIOTE BERRIRO HERRI SAHARARRARI"

beste baliabide naturalen (fosfatoak, ura eta harea) espoliozioaren bitartez lortutako etekinak kontuan hartu gabe. Kantitate hori oso desberdina da Europak 2018an saharar errefuxiatuen kanpamentuetara Europako Batzordeko Laguntza Humanitario eta Babes Zibileko sailaren bitartez bideratutako laguntzekin konparatuta: 9 milioi euro.

Akordioa ontzat emanez, Europako Batasunak hegoaldeko mugaren kontrolerako aliatu garrantzitsu bat izatea ziurtatu du marokoa okupazioaren alde egitearen truke. Estatu espainolak pisu nabarmena du babes horretan, bai muga horren parte izanagatik, bai oraindik saharar herriarekiko ardurak izateagatik.

Espainiak, Mendebaldeko Saharako potentzia kolonizatzaileak, legez kanpoko

Hirutariko Akordioen bidez Maroko eta Mauritaniari emandako lurralde sahararraren deskolonizazio prozesu amaitu gabea burutu behar du oraindik. Nazioarteko zuzenbideak biztanleriaren onuraz eta, ondorioz, bere baliabide naturalez arduratzera behartzen du, herri sahararrak autodeterminazio eskubidea gauzatu arte.

Aldiz, estatu espainolak okupatzailearekin duen erlazioa zaintzen du, Europako Parlamentuak Arrantza Akordioa zabaltzea erabakitzen duen egunean Felipe VI erregearen bisita batekin. Horrela, Espainiak eta Europako Batasunak bizkarrak ematen diote beste behin ere duela 43 urtez giza eskubideen urraketa desberdinak jasaten dituen herriari, denak erabakitzeko eskubidearen ukapenaren ondorio.

Baina zuzendari politikoen utzikeriaren aurrean, otsailaren 27 honetan gizarteak eta elkartasun mugimenduak argi erakusten dute herri sahararra ez dagoela bakarrik autodeterminazioaren eta duela 40 urte kanporatua izan zen lurraldeetara itzultzearen aldeko zilegizko borrokan. Ospa dezagun, hortaz, beste behin ere gizarte zibilak politikariek baino duintasun gehiago erakustek, sahararren eskubideen alde eginez eta, komunikabideen isiltasuna bada ere, Mendebaldeko Sahara ez ahaztuz.

**BIDALI ZURE GUTUNA:** erredakzioa@alea.eus  
Gutunarekin batera, bidali zure izen-abizenak, herria, telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia.  
**ALEAK eskubidea du gutuna laburtzeko eta alea.eus-en argitaratzeko.**

## SAREAN

#ESTITXUUGARTE

## #TalkaEzUkitu

**G**orka Urtaran alkatearen eta udal gobernuaren kontrako kritika zorrotzak etorri dira udaltzainek Talka gune feminista autogestionatua hutsarazi ondoren. "Herri mugimenduari egindako eraso" izan dela salatu dute Talkako kideek, eta Talka "espazio bat baino askoz gehiago" dela ohartarazi dute. "Proiektu bat da, auzo izaera bat, aliantzak egin eta sistema kapitalista heteropatriarkala iraultzeko tresna". Martxoaren 8a gogoan, Talka "gune zentral" bat izan dela oroitarazi dute, eta "aurpegia zuritzea" egotzi diete instituzioei: "Ez dugu onartuko martxoaren 8an instituzioek feminismoaren izenean inongo aldarririk egitea". ■



**BILGUNE FEMINISTA**  
@ArabakoBF

DESALOJOEN AURREAN, AUTODEFENTSA FEMINISTA! Zeren beldur zara Gorka Urtaran? Zer uste duzue zuk eta zure txakurrek? Ez gara zuen beldur! Borrokan jarraituko dugu!! Aurrera Talka! #talkaezukitu



**ZURIKETAMOREA**  
@zuriketa

Talka proiektu feminista indarrez hustu eta gero, hobe du Gorka Urtaranek Martxoaren 8an isilik egon! #ZuriketaMorerikEz diogu onartuko! Aurrera Talka! #TalkaEzUkitu!



**IDOIA IBARROLA**  
@idoiaibarrola

Amorrua sentiarazten dituen irudiak ikusi behar izan ditugu Talkan, baina ez dute Gasteizen zabaldu den iraultza feminista etengo. Erasoen aurrean autodefentsa feminista!!! #talkaezukitu



**USTELAK LURPERA**  
@Kaiz\_Oh

Hilabete aurretik autogestioa eta okupazioaz ahoa bete ibili ziren txiolarietako asko... Zergatik daude orain isilik? Zer zaudete, jefek Talka defendatu daitekeen ala ez esan zain? Espazio aske honek ez du Maravillas edo Kijera adina balio?



**ANEARISTI**  
@anearisti

Bitartean Gasteiz deitutako hiri moderno ireki honetan, Gorka Urtaran alkateak #M8 grebaren bueltan bere "momentikoa" bilatu nahi izan du nola eta udaltzaingoa bidaliz Talka Gasteizko emakumeak indarrez botatzera.

**M** Mendia  
Optika

**150** urte  
zure ondoan

[www.mendiaoptika.eus](http://www.mendiaoptika.eus)





### **Araski anfitroia, koparen bila**

Ostegunetik igandera, Saskibaloiko Erreginaren Kopako txapelketa jokatuko da Gasteizen; aurten, zortzi talde lehiatuko dira, ACB ligan bezala; tartean, hiru euskaldun daude: Lointek Gernika, IDK Gipuzkoa eta RPK Araski gasteiztarra. Ostegunean bertan jokatuko du Araskik lehen partidua, Cadi La Seuren kontra; 19:30ean hasiko da norgehiagoka, Mendizorrotzan. Eguna iritsi bitartean, txapelketaren harira antolatzen ari diren ekintzetan ari dira parte hartzen jokalaririk. **Argazkia: Iruri Knörr.** ■■■



**Bidali zure argazkiak testu labur batekin: [erredakzioa@alea.eus](mailto:erredakzioa@alea.eus)**



Martxoak 3 elkarteak kideek agerraldia egin dute igandeko mobilizazioaren atarian. ESTITXU UGARTE

# Nazio Batuetan urrats berri bat

Martxoak 3 elkarteak Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearen aurrean exijituko du Gasteizko sarraskiaren arduradunak ikertzeko, Espainiako Justiziak eskainitako bide guztiak agortuta.

**E. UGARTE LZ. DE ARKAUTE** GASTEIZ Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordera joko du Martxoak 3 elkarteak, 1976. urtean Gasteizen gertatutako hilketak ikertzeko exijitu diezaion Espainiako Estatuari. Hil honetan aurkeztuko dute salaketa abokatuek. Espainiako Justiziak aurreikusita dituen bide guztiak agortu ditu elkarteak jada, eta Martxoak 3ko biktimek

berretsi dute "Espainiako Gobernuaren aldetik ez dagoela borondate politikorik auzia ikertzeko". Andoni Txasko eta Nerea Martinez Martxoak 3 elkarteak kideek azaldu dutenez, zigorgabetasuna apurtzeko helburua du Nazio Batuen aurrean aurkeztuko duten salaketak. "Agerian utzi nahi dugu Espainiako Estatuak behin eta berriro urratzen duela giza esku-

bideen legedia. Hitzarmen batzuk sinatu ditu, eta hitzarmen horiek apurtzen ari da. Hori agerian utzi behar dugu, eta salatu nahi dugu".

Martinezek azaldu duenez, tokiko administrazioek, Espainiako Estatuaren parte direnez, ezin dute salaketarik aurkeztu Nazio Batuetan, baina bai norbanakoek zein gizarte eragileek. "Gure txanda da orain batzorde horretara joateko, eta espero dugu, 2015ean egin zuen bezala, Giza Eskubideen Batzordeak argi uztea Espainiako Estatuak ez duela betetzen nazioarteko legedia, giza esku-bideen aurkako krimenek ez dutela preskribatzen eta ezin direla amnistiatu".

**NBEren erabakia loteslea da** Martinezek gogoratu du Giza Eskubideen Batzordearen erabakiak lotesleak direla, eta horrenbestez, Espainiako Gobernuak



Martxoak 3an jasotako hilketak ikertzera behartuta egongo dela, Batzordeak hala agintzen baldin badu.

Nazio Batuen salaketarekin batera, Martxoak 3 elkarteko ki-deek nabarmendu dute Diputazioak prest duela ere frankismo-ko krimenak ikertzeko kereila bat, eta aurki eramango dutela epaitegietara. Frankismoaren biktimak artatzeko bulegoan azken hilabeteetan jasotako ehun bat lagunen lekukotzak baliatuko ditu Diputazioak Espainiako Estatua auzitara eramateko. Horretan Martxoak 3ko gertakariak ere biltzen direla azpimarratu du Txaskok.

### Martin Villa, 'persona non grata'

Epaitegietan lortu ez duten justizia beste ekimen batzuen birtartez lortzen ari dira Martxoak 3ko biktimak. Hala, Gasteizko Udalak Martin Villa *persona non grata* izendatu izana txalotu du elkarteak: "Martin Villa *persona non grata* izendatu duen lehen udala Gasteizkoa izan da, eta gure ustez, herriaren lorpen garrantzitsua da hori. Herria izan da hauspoa, 43 urte daramatza herriak justizia eskatzen, eta azkenean erakunde publikoak inplikatzeari lortu du herriak".

Halaber, asteon bertan, Gasteizko Udalak martxoaren 3ko biktimen aitortpena eraman du Kongresuan egin den Justiziaren eta Oroimenaren aldeko Hirien Sarearen topaketara. ■

**"MARTIN VILLA  
'PERSONA NON GRATA'  
IZENDATZEA  
HERRIAREN LORPEN  
GARRANTZITSUA DA"**

## Deialdiak

Martxoak 3ko gertakizunen 43. urteurrenaren harira hainbat deialdi egin dituzte eragile ezberdinek iganderako:

- **13:30** EH Bilduren ekitaldia, Martxoak 3 plazan.
- **17:00** Gazte Blokearen martxa Aiztogile kaletik.
- **17:30** Lore eskaintza, Martxoak 3 plazan.
- **18:00** Manifestazioa, Martxoak 3 plazan.



ALEA


**MARTXOAK** **3 de MARZO** 2019

**Aurrera beti! Ni un paso atrás**

13.30 Ekitaldi Politikoa  
Plaza 3 de Marzo

**ehbildu**





CSNk jasotako ikuskaritza-akta batean azaldu da informazioa. ALEA

# Garoñan jazotako istripuak, azalera

2018ko udan Garoñako zentral nuklearrean gertatutako hiru istripu ezaguratarazi dira orain. Besteak beste, 50 litro lokatz erradioaktibo isuri ziren, CSNk argitaratu dituen ikuskaritza-akta baten arabera.

## JUANMA GALLEGO GASTEIZ

Iaz hilabete eskasean Garoñako zentral nuklearrean jazotako hiru istripu eman ditu ezagutzera orain CSN Espainiako Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak. Iazko udan gertatutako istripuak dira, eta agiria iazko urrian sinatuta dagoen arren, joan den asteazkenean arte ez dute zabaldu. Azpiegitura nuklearretan egiten dituen ikuskaritza agiriak argitaratu behar ditu CSNk, legeak hala zehazten duelako.

Uztailaren 20an izan zen lehen istripua, eraikin batetik bestera bi iturri erradioaktibo mugitzen ari zirenean. Beharginek gurdi baten gainean jarri zituzten iturri horiek, bata bestearen gainean,

## GAIARI BURUZKO AZALPENAK ESKATU DITU EH BILDUK LEGEBILTZARREAN

lotu gabe, eta lurreen zegoen konkorraren erruz, goian zegoen iturria lurrera erori zitzairen. Berunezko ontzitik aterazen barruan zegoen zesio-137ko kapsula, eta hori babesten zuen beira ere apurtu zen. Laguntza iritsi bitartean, berunezko tapaki bat jarri zuten kapsularen gainean. Zunda baten bitartez 100 µSv/h-ko aktibitatea neurtu zuten. Kutsadura bi ordutan garbitu zuten.

Abuztuaren 2an izan zen bigarren istripua. Egun horretan, dekantatzaile batean jasotako lokatzak biltzeko bidoi batek gainezka egin zuen. "Beharginei ahaztu egin zitzairen betetako bidonia kentzea eta horren ordez bidoi berria jartzea. Horrela, fardel berri baterako lokatza botatzean, 50 litro isuri ziren lurreen", deskribatu dute agiriaren. 493 µSv/h izan zen neurtutako erradiazioa. Zuzendaritzak ez zuen ikusi gertakaria jakinaraztearen beharra.

Handik hamabost bat egunera, abuztuaren 17an, beste istripu bat izan zuten. Kasu horretan beharginak konturatu ziren lokatza jasotzeko ontzi bati aparra zeriola. Agiriak jaso du 150 µSv/h-ko erradiazioa neurtu zutela eremuan, eta 52 Bq/cm<sup>2</sup>-koa azalean. Ia hamabi orduez egon ziren ingurua garbitzen, 8,5 Bq/cm<sup>2</sup> baloreetara iritsi arte.

EH Bilduk zentral nuklearraren eraiste lanen jarraipena egiteko instituzio arteko batzordearen agerraldia eskatu du Legebiltzarrean. Alderdiaren abuzuz, "larria" da euskal erakundeek osatutako batzordeak horretaz ezer ez jakitea. "Eta baldin bazekien, are okerrago, informazio garrantzitsua ezkutatzegatik. Kasu batean zein bestean, organo horren utzikeria bistakoa da, eta bere funtzioa zalantzan dago".

# Onenetan onena, erdi-prezioan baino merkeago.

Orain, OSOA Familyrekin, **GIGA MUGAGABEAK** dituzu **DOAN** 2019ko **asteburu guztietan**.

Eta, gainera, kalitate handiko Internet, mugikorra eta telebista 4k Deskodetzaillearekin.

## Zatoz Euskaltelera



**120**  
MEGA



**20GB**  
DEI  
MUGAGABEAK



PREMIUM  
**TB<sub>a</sub>**  
4KDEKOArekin



**FINKOA**  
DEI  
MUGAGABEAK

**GIGA MUGAGABEAK**  
**DOAN**  
2019KO ASTEBURU GUZTIETAN



**19'9€**  
/hil  
6 hilabetez

Kontratatu pakete hau  
[euskaltel.eus](http://euskaltel.eus) helbidean | Dendetan | 1717an



euskaltel

Zatoz zuntzera 2019/3/15 baino lehen, eta sei hilabetez izango duzu sustapen hau, kontratazio-egunetik zenbatzen hasita. Iraupen-konpromisoa: 12 hilabete. Gero, prezioa 72 €/hil izango da. Ostiraleko 14:00etatik astelehenerako 24:00ak arteko datu-kontsumoak sartzen dira NAHI ADINA GIGA aukeran, eta arazoizko erabileraren politika bat du ezarria. BEZa sartuta dago prezioetan. Informazio gehiago, hemen: [www.euskaltel.eus](http://www.euskaltel.eus)

Babesle teknologikoa:



## ESANAK



**JOSEBA FERNANDEZ**

A. ERRIOXAKO KUADRILLAKO LEHENDAKARIA

**"Correosen funtzionamendu txarra arazo larriak sortzen ari da"**



**ELI ETXEBERRIA**

LAB-EKO IDAZKARITZA FEMINISTA

**"Egun, aliantza kriminala dago patriarkatuaren eta kapitalaren artean"**



**ADOLFO MUÑOZ 'TXIKI'**

ELA-KO IDAZKARI NAGUSIA

**"Mercedes aditua da langileak estutzen etekin ekonomikoak optimizatzeko"**

## ZENBAKITAN

### Tonak

**Arabako Errioxako** zazpi udalerritan 117 tona hondakin organiko konpostatu dituzte azken hilabeteetan. Guztira, hondakin mota horren %10 birziklatu egin dute modu horretan bizilagunek. Oion izan da ekimenera batu den azkena; eskola gunearen eta adineko pertsonen erresidentziaren artean dagoen kale batean konposta egiteko hainbat edukiontzi jarri dituzte. Hasiera batean, San Bizente ikastolako umeek erabiliko dituzte edukiontziak, astean bi aldiz hamarretakoaren hondakinak bertan botako baitituzte. Ikastolako jantokiaren hondarrak ere bertara eramango dituzte.

117

9

### Gaixoak

**Aste honetan** beste bi legionelosi kasu baieztatu ditu Gasteizen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak. Hala, dagoeneko bederatzi dira urtarriletik hona atzemandako kasuak. Pertsona horietako bat baino ez dago ospitale batean ingresatuta, baina bere osasun egoera ona da. Joan den astean, hiriko hozte-dorre guztiak desinfektatu zituzten. Osasun Sailak baieztatu duenez, hiru hozte-dorretan aurkitu dute bakterioa, eta dagoeneko garbitu dituzte.

19,1

### Milioiak

**Bide Azpiegituren sailak** 19,1 milioi euro inbertituko ditu A-625 errepidearen Amurrio eta Urduña arteko tartea hobetzeko. Proiektu horrek nabarmen hobetuko ditu gaur egun istripu ugari izaten dituen bide horren segurtasuna eta erosotasuna. Diputazioak adierazi duenez, lanak aurtengo udaberrian hasiko dira, kontratua izenpetu ondoren, eta ziur aski 2021. urtearen amaieran bukatuko dira. Legegintzaldi honetan bigarren obrarik garestiena da Amurriokoa.



## Intxaurrondoak landatu nahi dituztenen bila dabilza Añanan

Añanako Landa Garapenerako elkarteak intxaurrondoak landatu nahi dituzten nekazarien bila ari da. Martxoaren 15era bitartean izena emateko epea zabaldu du elkarteak. Fruitu lehorrak ekoizteko plan bat martxan jarri nahi dute eskualdean, nekazaritzako produkzioak dibertsifikatzeko eta ordezko laboreak bultzatzeko asmoarekin.



Intxaurrak ekoizteko plana dute Añanan.

## TAOa mugikorrarekin ordaintzeko sistema martxan da Gasteizen

Martxoaren 1etik aurrera, TAO zerbitzua telefono mugikorraren bidez ordaindu ahal izango da Gasteizen. Modu horretan, erabiltzaileek ez dute parkimetroaraino joan beharrik izango aparkatzeko txartela eskuratzeko, eta, gainera, aukera izango dute euren ibilgailua aparkatuta egon den denbora bakarrik ordaintzeko, eta ez gehiago.

## Oliba Olioaren VIII. Jaia, Oionen eta Moreda Araban

Martxoaren 16an zabalduko dute Oionen Arabako Errioxaren Oliba Olioaren VIII. Jaialdia. Dastaketarekin, pintxoaren lehiaketarekin eta musikarekin joango da eguna. Igandean, hilaren 17an, berriz, Moreda Arabara eramango dute ospakizuna. Bertan egingo dute produktuen azoka, eta gainera La Equidad olio-errotara bisitak antolatu dituzte. 2018ko olio uzta ere aurkeztuko dute.

## Berriz irekiko dute Artziniegako Museo etnografikoa

Aldundiko ordezkariekin bildu da asteen Artea etnografia elkarteak, eta Artziniega Museoaren irekiera bermatzeko akordioa erdietsi dute. Aldundiak 35.000 euroko laguntza emango dio elkarteari museoak kudeatzeko. Beste horrenbeste jarriko du Jaurlaritzak. Udala, bere aldetik, faltako litzaitekeen dirua jartzera konprometitu da, egoerak hala eskatuz gero.

antolatu  
saretu  
borrokatu

**LAB**

#MARTXOAK3

1976  
2019

Martxoak 1  
12:00etan ekitaldia  
Martxoak 3 ko plazan

# Magiaz beteriko egunak

Kuartango, Ilarduia, Andoin eta Eginoko herri inauterien ostean, Zalduondo, Kanpezu eta Salcedokoak izango dira egunotan; Gasteizen, bitartean, urteroko ikuskizuna eskainiko du Indarra kultur elkarteak.

## MIRIAN BITERI

Aurtengo herri inauteriei Kuartangon hasiera eman bazieten ere, otsailaren 9an, eta Ilarduian, Eginoko eta Andoin herrietan pasa den aste bukaeran egin dituzten arren, toki gehienetan datozen egunotarako antolatu dituzte ekintza gehienak.

Zalduondon, igandean, martxoaren 3an, erreko dute *Markitos*. Urtero bezala, kolorez apaindutako gurdi baten gainean agertuko da, 11:30ean, traje beltzez jantzita. Herriko kaleetatik eraman ostean, zutoin batetik zintzilikatuko dute eta herri bazkaria egingo dute; hori amaitzean, berriz ere, kalera joango dira, predikadore, errauts-banatzaille, kale-garbitzaille, musikari, agure,

atso, hartz, ardi eta porreroek lagunduta. Kalejira bukatzean, epaiketa egin eta panpina erreko dute.

## Toribio, errekarra

Santikurutzeko Kanpezun, osteran, inauterietako asteartean botako dute *Toribio* Ega errekarra, han ito dadin. *Katxiruloek* makila batetik zintzilik eramango dute lastozko panpina eta, epaitu ostean, ibaira botako dute. 19:00etan izango dute han urteroko hitzordua.

Beti bezala, Salcedo izango da inauteriak ospatzen dituen azkenengo herria; martxoaren 9an egingo dute, 19:30ean. Oiloak lapurtu eta bestelako gaiztokeriak egiten dituen *porretero*a epaitu egingo dute egun horretan; eta jipoitu

ostean, herriko garbitokiko teiltura botako dute putreek jan dezaten.

## Gasteizen, 26 konpartsa

Betiko moduan, herri inauteriez gain, bestelako mozorro jaiak antolatuko dituzte herrialde osoan, eta baita Gasteizen ere. Bertan, pasa den asteartean eman zioten hasiera egitarauari, konpartsen aurkezpenarekin. Aurten, 26 konpartsek parte hartuko dute larunbata arratsaldean eta igande goizean egingo diren desfileetan; hain justu ere, hiriko ikastetxeetako guraso, auzo, kultura edo bestelako elkarteetako 6.989 lagun irtengo dira mozorrotuta.

Ohi bezala, askotarikoak izango dira konpartsa horiek



Urtero moduan, Kuartangon eman zioten hasiera Arabako herri inauteriei. JULEN ORTIZ DE ZARATE AMIROLA

guztiek jorratuko dituzten gaiak: Abetxukuko inauterietako konpartsa, esaterako, *zingartxuko*-z joango dira eta Egibide-Nieves Cano ikastetxeko gurasoen elkartekoak, berriz, *Kirolbide Rugby Cup*-ez; Sansomendi-Ali Lagun Taldekoak erromatarrez jantziko dira eta Virgen de Guadalupe Extremadurako elkartekoek Erdi Arora bidaiatuko dute.

Desfileez gain, bestelako ekitaldiak ere izango dira hiriburuan. Ostegunetan bertan, hilaren 28an, Ostegun Gizenarekin, kalejira egingo dute haur abesbatzek; eta iluntzean, Plaza Berrian bildu eta Jose Uruñuelako dantzariekin, Udaleko Folklore Akademiako musikariek eta bestelako abesbatzekin batera arituko dira.



'Kimuak, Iñausi eta berriak hazi' ikuskizuna eskainiko dute ostiralean, Gasteizen. ALEA

Ostiralean, *Kimuak; iñausi eta berriak hazi* ikuskizuna eskainiko du Indarra kultur elkarteak 20:30ean, toki berean; inauteriak ospatzen 40 urte daramatzala ospatuko du taldeak horrekin. Neguaren amaierak eta loratzeak herrialdean alaitasuna eta koloreari bide ematen dion

modua erakutsiko dute emanaldi horretan.

Larunbat goizean, beste alde batetik, Gasteizko margolarien kalejira izango da, eta Ibiltariari mozorroa jantziko diote. Sardina erretzearekin amaituko dira inauterietako asteartean ospakizunak; 18:00etan izango da, Plaza Berrian. ■

**Artium**  
araba  
álava

## ERAKUSKETAK

### *Riflepistolacañón*

Jacobo Castellano

> 2019.05.19

### *Queda mucho pasado por delante. Oroí*

Artium bilduma

> 2019.08.25

## JARDUERAK

### ARTISTAK GUREAN

Ana Román

03|07 19:00

### HITZALDIA

*Utopía*. Leyre Goikoetxea

03|21 19:00

### FAMILIENTZAKO JARDUERAK

Artium Txikia

Igandero 12:15>13:30

Good Morning Artium

Igandero 12:00>13:30

FamiliArtium

Lantegia. *Materialak* aztertzen: *Ukimena*

03|09 17:00>19:00

FamiliEntzako Gunea eta

Lantegiak San Jose Zubia

03|17, 18, 19 11:00>13:30 | 17:30>19:30

### GAZTEENTZAKO LANTEGIAK

12-18 urte bitarteko. *Musika hedatua*

03|16 17:00>19:00

### ERAKUSKETEN BISITA GIDATUAK

Asteazkenero 18:30 (euskaraz)

Igandero 12:30

Artium Lorategian

03|29 18:30

Argibide gehiago:

[www.artium.org](http://www.artium.org)



# Pintxoak, jaun eta jabe

Miniature pintxo jaialdiaren seigarren edizioa hartuko du Gasteizek martxoaren 4tik 6ra bitartean; guztira, 80 sukaldaritik gora elkartuko dira gastronomia ekitaldi horren bueltan antolatzen diren ekintzetan.

## ERREDAKZIOA GASTEIZ

Bueltan da berriro ere Miniature pintxo jaialdia. Berrikuntzekin dator seigarren edizioa: esanguratsuen *Best Pintxos & Gastro* izeneko gida da; horren bidez, Hego Euskal Herriko establezimendurik onenak sailkatuko dituzte eskaintzen dituzten pintxoaren arabera, eta bat, bi edo hiru eguzkilore jasoko dituzte.

Aurtengo jaialdia martxoaren 4tik 6ra egingo dute, Europa jauregian. Baina egun horietako ekintzez gain, bestelakoak ere antolatu dituzte biltzar horren bueltan. Ostegunean, hilak 28, esaterako, *Miniature Iron Chef* afaria izango da; taldekako pintxoaren lehiaketa bat da hori, eta jankideak epaimahai

bihurtuko dira, martxoaren 6an egingo den finalean taldea ordezkatzeko duen pintxo aukeratzeko.

### Umeentzako jardunaldiak

Igandean, martxoak 3, berriz, pintxoak eskainiko dituzte Iradier Arenan jarriko duten barra batean, 12:00etatik 15:00etara. Bertan izango dira ere Miniature Kids saioak, etxeko txikiak sukaldaritzan murgiltzeko jardunaldietan parte har dezaten. Egun berean, Txapeldunen afariak Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako pintxo lehiaketetako irabazleak bilduko ditu, 21:00etan, Jardines de Uleta hotelean.

Arabako sukaldaritzaren ordezkapen handia izango da.

Besteak beste, Edorta Lamok (A Fuego Negro, Arrea!), Senen Gonzalezek (Sagartoki) eta Josean Merinok (PerretxiCo) miniatura-sukaldaritzan, pintxoak eta kaleko janaria gerturatuko dituzte Gasteizera, beste chef askorekin batera.

Era berean, Mario Sandoval sukaldaria ere egongo da. Europa jauregiko hitzaldi nagusian izateaz gain, jaialdiaren ixte-afarian omenduko dute, sukaldaritzan adierazitako kezkarengatik, ikerketarako eta sormenerako ardura biziarengatik eta pintxoaren eta tapen munduarekiko hurbiltasunarengatik. Denera, 80 sukaldari baino gehiagok hartuko dute parte aurtengo edizioan. ■■■



Askotariko pintxoak aurkeztuko dituzte egunotan Miniature jaialdian parte hartuko duten sukaldariek. MINIATURE

2019KO  
INAUTERIE TAKO  
ARGAZKI LEHIAKETA  
Bidali zure argazkiak!



2016 ko irabazlea ALFREDO LUZARRAGA (Agurain)

Parte hartu:

Antolatzailea:

Saria:

[alea.eus](http://alea.eus)

 ALEA

 ERRIGORA



# Musua, tutorialik gabe

SEXUALITATEA



EMAIZE

**G**izakion baitan gozatzeko grina dago eta horretarako bide anitzak jorra ditzakegu, harreman erotikoak besteak beste.

Maitale ona izateko gomendioak ematen dituzten idatziak aspaldikoak dira, horien artean ezagunena *Kamasutra*. Bai jaun andereak, *Kamasutra* koitoaz aritzeaz gain, gozamen erotikorako garrantzitsuak izan daitezkeen beste jokoez aritzen da: masajeak, koskak eta musuak adibidez. Liburu honi beste batean ekingo diogu eta musuetan jarriko dugu arreta orain.

Zenbat urte pasa dira desioz jositako lehen musua eman zenuenetik? Zenbat musu eman dituzu geroztik? Elkarri emandako musu horiek gozatu dituzu? Noiz da musu bat arrakastatsua?

Ez dakit honi noizbait erreparatu diozuen, baina antza denez ondo musukatzen ikasteko beharra dugu. Hala dirudi behintzat youtuben kuxkuxean ibiliz gero, musuak modu egokian emateko tutorial anitz aurkitu baitaitezke. Uler genezake pubertaroan sartu berri dagoen gazte batek jakin-min hori izatea, baina 30 eta 45 urteko pertsonak behar hori izatea ez al da harritzekoa? Hau da zenbait kanaletara jotzen duen jendearen profila.

Adin horren inguruan luzaroko bikote asko apurtu ohi dira eta pertsona batekin

ohituta egonda, berriren batekin ligatzerakoan ondo egingo dugun urduritasunak bultzaturik jo dezakegu gomendio bila. Baliteke gure bizitzan zehar izandako ligeak egun bakarrekoak izatea eta pertsona berdinarekin errepikatzeko aukerarik ez izateagatik kezkatu jotzea. Bakoitzak arrazoi batzuei jarraituz ekingo dio laguntza

## ASKATASUNA BEHAR DU DESIOAK; MIAZKATU BESTEAREN ZAPOREA NAHIERAN, HORIEK DIRA MUSURIK ONENAK

bilari, baina gure beldur, ezinegon edo arrakasta faltaren konponbidea kanpoan bilatzeak ez du gure barnera begiratzeko zailtasuna adierazten?

Pertsona horrek ez badu gurekin errepikatu nahi gure musuengatik izango da? Norbait gurekin gustura badago

musuak elkarri hobetuko ditugu, ez da horregatik aldentuko. Bikote harreman luzea eta gero, berriak izango bagina bezala aritzeak ez du gure ziurtasun falta azaltzen? Batekin emandako musuak ez dira berdinak izango bestearekin, baina esperientziak badu balioa.

Gure zailtasunak, beldurrak, ezinegonak... ezagutzen ditugunean, hobetzeko eta ziurtasuna lortzeko bidean gaude. Eta barrura begiratzeaz gain, gure instintuan fidatzea egokia litzateke. Inork ez du master bat behar musu goxoak emateko eta tutorialak dioten pausuak eta moduak jorratzeak ez digu modu askean aritzeko aukerarik emango.

Erotikak desioan du oinarria eta desioak ez du arauekin funtzionatzen. Desioak askatasuna behar du, bai pizteko eta baita bestearekin gozamina bilatu eta disfrutatzeko ere. Elkar ukitu ezpainak, mihiak, miazkatu bestearen zaporea nahieran, horiek baitira musurik hoberenak. ■■■

emaize

SEXOLOGIA ZENTROA  
CENTRO SEXOLÓGICO

Bueno Monreal 1. behea · 01001 Vitoria-Gasteiz  
945 265 896 · emaize@emaize.com · www.emaize.com

# Moda versus arropa

DISEINUA



MADDALEN AGIRRE LOIRAZ

DISEINATZAILEA



M.AGIRRE

**M**odari buruz ari garenean, ideia ezkor asko datozkigu burura. Sexismoa, kutsadura, kontsumismoa, gehiegikeria eta esplotazioa, besteak beste. Baina modak baditu alderdi positibo ugari ere, batzuetan ikuserrezak ez diren arren. Kultura, sormena eta ezagutza askoren emaitza baita moda.

Urteetako kapitalismoak estali egin ditu alderdi interesgarri horiek guztiak. Gure ezagutzen balioa gutxitu eta ekoizpena herrialde txirotuetera eraman du, haien lana ere gutxietsiz. Munduko sektorerik feminizatuetoako bat izanik, hegoalde globaleko emakumeak esplotatzen dituen bitartean, iparralde globalekoak

kontsumitzaile huts bihurtu ditu, zer nolakoak gainera. Enpresariak haien poltsikoak gizentzen dituzte, gu hangoen lepotik janzen garen bitartean.

Testuinguru honetan, nola azalerazi modaren alde ona? "Agian, aurrerantzean, modaz hitz egin beharrean, arropaz hitz egin beharko genuke". Hori dio Li Edelkoort moda tendentzia iragartzaile nabarmenak, egungo moda ereduaz atzean utzi eta arropari duen garrantzia itzultzeko deia eginez. Zeren, moda eta arropa ez dira gauza bera. Moda aldakorra eta arrakastatsua den arropa multzoa da, industriak sortutako produktua. Arropari so eginez ordea, prozesu sakon eta aberatsa topatu dezakegu.


Arropagintza antzinako ezagutza bat da, bere baitan askotariko teknikak biltzen dituen. Arropa identitate modu bat da, gure burua bereizteko ez ezik, taldearen parte egiten gaituena. Arropa diseinua, originaltasuna eta ausardia da. Arropa artisautea da, folklorea, gure sustraien erakusle. Gure arbaso emakumezkoen jakintza erakusle.

Moda eta bere kontuak alde batera utzi eta jar dezagun arropa erdigunean. Arropak balioa baitu, eta handia gainera. Ikus dezagun arroparen atzean dagoen lana eta edukia. Aska dezagun modaren mataza eta eman diezaiogun merezi duen lekua arropari! ■■■



# Zuiako balkoia

GURE BAZTERRAK



## Gilierna

**Kuadrilla:** Gorbeialdea.

**Udalerrria:** Zuia.

**Biztanleak:** 55 (2018ko Eustaten datuen arabera).

**Bitxikeria:** Brontze Aroko Aislarra izeneko herrixkaren aztarnak topatu dituzte Gilierna inguruan.

**ARGAZKIA:** PHOT.OK

**TESTUA:** ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Larrazkueta eta Bitoriano lotzeko ibilbide bat dago, Zuiako eta Urkabustaizko udalerrien arteko lotura oinez edo bizikletaz egiteko egokia. Gilierna bide horren erdian dago. Landa izaera nabarmentzen da herrian, etxe dotoreak eta giro adeitsua. 659 metroko altitudean egoteagatik, behatoki pribilegiatua da Gilierna Zuiako haraneko gainerako herriei begiratzeko: Murgia, Oroko santutegia... Bista ederrak gozatzeko Santiago Apostoluaren elizaren ondoan dagoen Maxi Camararen plazara hurbildu behar da. Plazaren behealdean duela urte gutxi egindako bolatokia dago, zaletasun handia baitago herrian kirol honekin, eta Arabako bolo txapelketan parte hartzen dute herri-tarrek.

San Fausto zaindariaren jaiak Pilarreko egunean egiten dira. Aspaldi, jaietan, antxume bat he-

rriko kanpandorretik jaisten zuten kable batekin musikariaren agertokiraino. Egun, ohitura hori desagertuta dago.

Aldiz, El Pilarren alboradak egiteko tradizioari eutsi diote, nahiz eta, egun, bazkaldu ostean egiten dituzten. Trikitiekin lagunduta, etxez etxe joaten dira parrandazaleak eta etxe guztietan jateko

eta edateko zerbait ateratzen diete.

Giliernatik gertu, lehen aipatu dugun Larrazkueta herrira bidean, Urkabustaizko Irla-Haritzia dago. Historian zehar eraso asko jasan dituen ekosistema baten hondarra da. Bertako eremu potentziala nekazaritza eta abelazkuntzarako erabili izan da. Gainera, AP68 autobideak basoa zeharkatu eta erdibitzen du, eta parajearen edertasuna kaltetzen du. Nahiz eta harizti gehienak gaur egun desagerturik egon, esparru barruan dauden multzo txiki batzuk gorde egin dira. Horietako nabarmenteko bat, duen hedadura eta egitura-keta naturalaren alde-tik, Godamo mendian dagoena da. Azterlan zientifiko berrienen arabera, irla-basoak garrantzitsuak dira ingurune deforestatueta arboladi sistemiei loturiko animalia espezieak kontserbatzeko. Hala, Urkabustaizko hariztiak eskualdeko babesleku bilakatu dira.



# Irakurleen txokoa

ZOKKETAK

PARTE HARTU [www.alea.eus/zozketak](http://www.alea.eus/zozketak)

## Irabazleak:

**Berri Txarrakerako sarrerak:** Miren Fernandez de Betño Saenz de Lacuesta.

**Artepanen gosaria:** Mari Lo Trigo Sabando.

**Mafalda eta Ezetaerre taldeen kontzerturako sarrera solteak:**

Begoña Amondarain Samaniego.

Miren Aizpurua Cendoya.



## The Limboos + Nevadah Bi sarrera solte

The Limboos eta Nevadah musika taldeek kontzertua eskainiko dute martxoaren 15ean, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan. ALEAk bi sarrera solte ditu izena ematen dutenen artean zozkatzeko. Parte hartu martxoaren 5a baino lehen.



## Hala Bedin afaria Bi lagunentzat

ALEAk Gasteizko alde zaharreko Hala Bedi tabernan bi lagunentzako afaria zozkatuko du, ostiralean edo larunbatean afaltzeko. Zozketan parte hartzeko, eman izena martxoak 12a baino lehen; martxoaren 15eko aldizkarian jakinaraziko dugu irabazlearen izena.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

[alea.eus/harpidetzak](http://alea.eus/harpidetzak)



Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: [harpidetza@alea.eus](mailto:harpidetza@alea.eus)

# AGENDA

Martxoaren 1etik 7ra

## Euskararen agenda

### MUSIKA

#### AMURRIO Joseba Irazoki eta lagunak

Eskean Kristo taldearekin batera.  
*Larunbata 2, 22:30ean, Burubio aretoa.*

#### LAUDIO Yogurina Borova

*Gora emakumeak izeneko lana aurkeztuko du.*  
*Larunbata 2, 23:00etan, herriko plazan.*

### BERTSOLARITZA

#### LAUDIO 'Erradikalak gara' ikuskizuna

Ane Labaka bertsolariak eta Beatriz Egizabal kontalariak eskainiko dute bertso saioa.

*Igandea 3, 18:00etan, Kasinoan.*

#### GASTEIZ Bertsokatu sariketa

Oier Arbina, Elixabet Etxandi, Xabi Igoa, Eder Iturralde eta Peio Ormazabal bertsolariekin.  
*Asteazkena 6, 20:00etan, Hala Bedi tabernan.*

### HAURRAK

#### DULANTZI 'Pantxikaren abenturak'

Zirko, musika eta dantza ikuskizuna.  
*Ostirala 1, 18:00etan, auditorioan.*

#### GASTEIZ Tor magoa

'Amarru' magia ikuskizuna.  
*Ostirala 1, 19:00etan, Arana gizarte etxean.*



'JANIS'

#### GASTEIZ 'Janis: Little Girl Blue'

Filmazpit zikloaren barruan eskainiko dute dokumentala; jatorrizko bertsioan, euskarazko azpitituluekin. Janis Joplin 60ko hamarkadako rock eta blues abeslari ikonikoari buruzko film musikala, Cat Power artistaren eskutik kontatutakoa.

*Asteartea 5, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.*

#### GASTEIZ 'Sentitu, ukitu eta ekin'

Ameli eta Xirrikituen jostunak taldearen eskutik. 2-3 urte bitarteko haurrentzat.

*Asteazkena 6, 18:15etan, Zabalgana gizarte etxean.*

### DANTZA

#### GASTEIZ 'Kimuak' ikuskizuna

Ikuskizun berria aurkeztuko du Indarra dantza taldeak. 40. urteurrena ospatuko dute.

*Ostirala 1, 20:30ean, Plaza Berrian.*

### IKUS ENTZUN

#### GASTEIZ 'Oreina' pelikula

Euskal Zinemaren Astearen barruan eskainiko dute Koldo Almandozek zuzendutako pelikula. Aurretik, 'Ane' izeneko film laburra aurkeztuko dute. Publikoak filme onena aukeratzeko parada izango du.

*Ostirala 1, 20:00etan, Dendarabako aretoa.*

**Jimmy jazz**  
gasteiz

**MARTXOA**

**Os. 1** MAFALDA + EZETAERRE

**Lr. 2** NUBLIA + MARA (IGOR ARZUAGA)

**Lr. 2** DJ LORO & SELEKTAH STEPI

**Lr. 9** HAY POCO ROCK AND ROLL

GORAZARRE JAIALDIA: (EXTREMODOURO, MAREA ETA PLATERO Y TU)

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM





# Martxoa 2019

## OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

### GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

**05** as. | 19:00 Ikus-entzunezkoa



**Janis: little girl blue**

Hizkuntza: ingelesa

Filmazpit, zinema jatorrizko bertsoian euskarazko azpitutuekin

**10** ig. | 19:00 Dantza-saioa



Gonbidapenak: oihanederen

**Imanol Zabaleta**

Gasteiz

Ilunabarrean dantzan balfoika eta euskal dantzen plaza

**13** az. | 19:00 Ikus-entzunezkoa



**Alardearen seme-alabak**

Oihana Etxebarrieta, Eneko Olasagasti & Joseba Garmendia

Begi Belarri, ikus-entzunezkoen zikloa

GEU Elkartearekin elkarlanean

**14** og. | 20:15 Aurkezpena



**21. Korrikaren Arabako aurkezpen soziala**

AEK-Korrika rekin elkarlanean

**17** ig. | 19:00 Kontzertua



**Manez eta kobreak**

Saski Naski, sorkuntza artistikoen otzara

**20** az. | 19:00 Ikastaroa



Izema emateko: UEU BUS


**Parmera**

Sara Agnetti

Hitz Adina Mintzo, hizkuntza gutxiak ezagutzeko zikloa

UEUrekin elkarlanean

**26** as. | 19:00 Ikastaroa



**Soziolinguistika hiztegi txikia: hezkuntza**

Leire Díaz de Gereñu & Naiara Berasategi

UEUrekin eta Soziolinguistika Klusterrarekin elkarlanean

**28** og. | 19:30 Kontzertua



Falerina Taberman

**Xabi Bandini**

Eskilarapeko Soinuak, formatu txikiko kontzertuen zikloa

**31** ig. | 19:00 Ikuskizuna



Gonbidapenak: Oihanederren

**Enkarguz**

Andoni Egaña & Xabier Zabala

Korrika kulturalarekin elkarlanean

## 2019ko aurkezpenak

**GAZTE SORTZAILEAK BEKA**

2018ko sormen lan irabazleen aurkezpenak

Gasteizko Udalararekin eta AFArekin elkarlanean

OIHANEDERREN

**Martxoak 22 | 20:30**

OSKOLA

Urko Saenz de Buruaga Gonzalez  
MUSIKA SAIOA

**Apirilak 4 | 20:30**

TRIPAK: HUTS BETE HOTS

Eguzki Donnellan Armengod & Haizea Beruete Lopetegui  
IKUSKIZUNA

ALDABEKO ANTZOKIAN

**Apirilak 11 | 18:30**

AIOKO UHARTEA

Eñaut Gorbea Lopez de Uralde  
ITZALAK, TITEREAK & AHOZKOTASUN IKUSKIZUNA

**Maiatzak 18 | 18:00**

ZER HARTU ONTZITIK ITSASOEA HARRI BIHURTZEN BADA

Miren Narbaiza Martiartu & Joseba Baleztena  
EMANALDI MULTIDIZIPLINARRA

**oihaneder.eus**

Fray Zacarias Martínez, 2 - Vitoria-Gasteiz

LAGUNTZAILEAK

Diario

ALEA

berria

ANTOLATZAILEA



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA  
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko Udala



# Emakume gehiagorekin

gure Kontzejuak irabazle

# Con más mujeres

nuestros Concejos ganan

Arabako Kontzejuetan karguen %24 soilik dago emakumeen esku.  
En los Concejos de Álava solo el 24% de los cargos son ocupados por mujeres.

Laguntzaileak / Colaboradoras:



ASOCIACIÓN DE CONCEJOS DEL MUNICIPIO DE VITORIA  
"HAUSDALO DE LA JUNTA DE ELORRIAGA"  
GASTEIZO KONTZEJAI ELKARTEA  
"ADON-GKE"



**LAIA eskola**  
Arabako emakumeen jabetasunaren eta berdintasunerako eskola  
Espazioa gaitasun eta erantzukizunaren alorreko emakumeen eraketarako



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava